

Akta/Kronika.

Lezon Energia Komunitatea Eratzeko Prozesua

1.go saio irekia.

Pleno aretoa [2024/11/11]



1.- Deskribapena

1.1.- Oinarrizko informazioa.

- **Data:** Azaroak 11, astelehena.
- **Saioaren iraupena:** 1,5 ordu.
- **Ordutegia:** 18:30etatik 20:00etara.
- **Lekua:** Euskara eta cultura aretoan
- **Antolatzaileak:** Iratzerri eta Lezoko udala.
- **Dinamizazio taldea:**
 - Oier Etxebarria Gutierrez (Goiener)

1.3.- Parte-hartzaileak: Lezoko bizilagunak norbanako bezala eta herri eragileak

- **Guztira:** 27 pertsona.

- **Genero/sexu banaketa:**

- Emakumeak: 5

- Gizonak: 22

Adinaren arabera:

< 19 urte: 0

20 – 29 urte: 4

30 – 39 urte: 2

40 – 49 urte: 3

50 – 59 urte: 10

60 – 69 urte: 8

70 – 79 urte: 0

2.- Saioaren helburuak:

- **Aurkeztu:** Herritarrek parte hartze prozesu honen inguruko informazioa izan dezaten testuinguru nahikoa azaltzea: Udalak energia trantsiziorako ibilbidean bideratu nahi dituen ekimenak aurkeztea: Energia Berriztagarrien Komunitatea (EBK).
- **(In)Formatu:** Energia Berriztagarrien Komunitateen inguruko informazioa herritarrei helaraztea: Zer da EBK bat eta nolakoa izan daiteke hau eratze prozesua.
- **Ezagutu:** Herritarren interesa eta prozesuan parte hartzeko motibazioa. Galderak jaso, zalantzak entzun eta indarrak neurtu.
- **Hurrengo pausoak** parte hartzaileekin batera zehaztu.

2.- Edukiak

2.1.- Aurkezpen instituzionala:

Jon zinegotziak udalaren papera eta asmoa azaldu ditu

2.2.- Iratzerriren azalpenak

Ekaitzek Iratzerriren papera zein izango den azaldu du eta eskertza adierazi die etorritakoei.

2.3.- Parte hartzaileen aurkezpena eta etortzeko arrazoia:

Orokorrean gaiarekin interesatuta eta informatzera etorri direla esan dute. Energia Komunitatea zertarako izan behar duen edo norbera zertara etorri den galdetuta aipatutakoak hauek izan dira:

- | | |
|---------------------------------|------------------------------|
| - Eredu energetikoa eraldatzeko | - Aukerak ezagutzera |
| - Ezagutzera | - Dekarbonizazioa lantzerako |
| - Interesa daukat | - Herrigintza |
| - Ikastera | - Aportatzera |
| - Entzutera | - Jakinmina asetzerako |
| - Komunitatea lantzerako | |

2.4.- Formazioa: Energia Komunitateen Egituraketa.

Goiener-en eskutik, EBK baten eratze prozesuaren inguruko aurkezpena egin da. Besteak beste, Energia Berriztagarrien Komunitatearen definizioa eta ezaugarriak aipatu, ondoren horren eratze prozesua eta Talde Sustatzailearen egituratzea azaltzen jarraitzeko.



Definizio honekin batera, EBK baten onurak sozioekonomikoak eta ingurumenekoak direla azpimarratu du, inklusioaren aldetik dituenak nabarmenduz. Eta onura ekonomikoak izan baditzake ere, EBKaren forma juridikoa irabazi asmorik gabekoa behar duela izan azpimarratu da. Beste bi ezaugarri esanguratsu hauek ere badituzte: tokiko baliabideen aprobetxamendua bertako komunitatearen esku izatea eta gobernantzaren aldetik boterearen kudeaketa demokratikoa.



Jarraian, EBK martxan jartzeko prozesua azaldu eta bertan kokatu du saio hau. Une honetan fase berri batean ari gara sartzen: Interesatuen ahalduntzea eta EBKei buruz informatzetik Diseinu eta Elkar-sorkuntzarantz. Hemendik aurrera hurrengo pausoak zeintzuk izango diren azaldu dizkigu: lehenik eta behin prozesu horretan parte hartzeko motibazioa duten herritarrek osatutako Talde Sustatzaile bat sortzea eta, ondoren hau lantaldeetan egituratzea.

3.- Galde erantzunak

Gai desberdinen inguruan izan dira galderak eta aurrerago emango diren formazioetan sakonduko den arren, lehen erantzunak eman dira proiektu posibleen, finantzakearen etabarren inguruan.

3.- Talde lana eta bat egitea.

Bost pertsonako lantaldetan bakoitzaren iritziz energia Komunitateak zertarako balioko duen eta bakoitzak zer ekarriko duen arakatu da, ondoren guztion artean partekatuz. Atera diren gaiak hauek izan dira:

- Helburuak:
 - Burujabetza
 - Kontsumo arduratsua
 - Gizarte hobe bat lortzea
 - Kontzientziazioa
 - Eredua aldatu
 - Ohiturak aldatu
 - Inpaktu txikiko energia berriztagarriak sustatzea

- Norberak ekarriko duena:
 - o Ezagutza Teknikoa
 - o Denbora
 - o Bertigoa/zalantza
 - o Lantaldetako lanean parte hartzea
 - o Komunikazioa eta saretzean aportatzea
 - o Administrazio lanetan jakintza
 - o Esperientzia

5.- Hurrengo pausoak

Abenduak 2, astelehen.

18:30etatik 20:00etara.

Kultura eta euskara aretoan